

# **JARDUEREN TXOSTENA, 2021**

## **AURKIBIDEA:**

---

### **JARDUEREN TXOSTENA**

#### **ANTOLAKETA EGITURA**

##### **1. SAREAK ETA LANKIDETZAK**

##### **2. KOMUNIKAZIOA**

- 2.1 Zirkularrak.
- 2.2 Kudeaketak komunikabideekin.
- 2.3 Newsletter.
- 2.4 Webgunea.
- 2.5 Sare sozialak.

##### **3. ZERBITZUAK**

- 3.1 Akordioak hirugarrenekin.
- 3.2 Aholkularitza.
- 3.3 Laguntzak eta dirulaguntzak eta lizitazioak
- 3.4 Lan-poltsa.
- 3.5 #GetxoEnpresaFreeWifi.
- 3.6 Enpresa bazkideentzako newsletter eredia.
- 3.7 Negozioen Kanpo Irudia Hobetzeko Proiektua
- 3.8 Ostalaritzako Establezimenduak Sustatzeko Proiektua: Errezetak eta trikimailuak
- 3.9 Iragarkien ohola

##### **4. JARDUERAK**

- 4.1 2022ko agenda-dietarioa
- 4.2 Tokiko negozioen egutegia
- 4.3 Bonoen ekimenak
- 4.4 Getxoko Erakusleihoen XXXI. Lehiaketa
- 4.5 Getxo Bono
- 4.6 35 Getxo Moda
- 4.7 Gosaltzera gonbidatzen zaitugu

# JARDUEREN TXOSTENA

## ANTOLAKETA EGITURA

### **BATZAR OROKORRA → ZUZENDARITZA BATZORDEA → BATZORDE BETEARAZLEA → KUDEAKETA TALDEA**

#### **BATZAR OROKORRA**

Elkartearen nahiak adierazteko organo gorena, kolektiboko kide diren enpresek osatua.

#### **ZUZENDARITZA BATZORDEA:**

Elkartearen gobernu eta zuzendaritza organoa, tarteka biltzen dena elkartean jorratzen diren gaiak buruz aritzeko.

#### **BATZORDE BETEARAZLEA:**

Zuzendaritzako zenbait kidek osatutako organoa. Zuzendaritza Batzordeak onetsitako gaiak kudeatzen ditu, eta elkartetik egiten diren proiektuak egikaritzeko beharraren arabera biltzen da.

#### **KUDEAKETA TALDEA:**

Zuzendaritza Batzordeak onetsitako proiektuak kudeatzen eta aurrera eramaten dituzte.

2021eko maiatzaren 5ean izango da 2020ko OHIKO BATZAR NAGUSIA, eta honako hau izango da gai-zerrenda:

- 2019ko Ohiko Batzar Orokorraren akta irakurtzea eta, egokia bada, onestea.
- 2020. urtean egindako jarduerak eta 2021. urterako jarduera plana.
- 2020. urteko informazio ekonomikoa eta 2021. urterako aurrekontua.
- Bazkide-tutako enpresen 2020ko zerrenda.
- Zuzendaritza Batzordeko karguak berritzea.
- Galde-eskeak.

Gainera, honako dokumentazio hau editatu da:

- 2020ko urteko memoria (formatu digitalean).
- 2021eko ekitaldiari buruzko informazio ekonomikoa.
- 2021eko Ekintza Plana.
- 2021eko ekitaldirako aurrekontua.

# 1. SAREAK ETA LANKIDETZAK

---

Gure kolektiboa osatzen duten ia 300 enpresa horiek geure esku utzitako ordezkaritza lantzen jarraituko dugu 2021ean zehar, bai eta elkarteko enpresek helarazten dizkiguten beharrian eta interesak kudeatzen ere. Horretarako, etengabe hitz egiten dugu tokiko administrazioarekin, foru administrazioarekin eta lurraldekoarekin, bai eta erakunde publiko eta pribatuekin nahiz beste enpresa elkarte batzuekin ere. Gainera, udalerriko enpresa sarearentzako eta, bereziki, elkarte osatzen duten enpresentzako interesekoak diren ekintzak aurrera eramatera zuzendutako foro eta ekimenetan parte hartzen dugu.

Laneko espazioak honako sare eta lankidetzak hauekin lotuta daude:

- Getxoko Udala.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Eusko Jaurjaritza.
- Bilboko Merkataritza Ganbera.
- Kontsumoko Batzorde Arbitrala.
- Hiriko Zentroak Kudeatzeko Espainiar Elkarte
- Euskadiko Merkataritza foroa.
- Getxoko Enpresen Kontsulta Foroa:
  - Merkataritza Mahaia
  - Ostalaritza Mahaia.
  - Enpresen kontsulta-foroa.
  - Tokiko Kontrasteko Mahai Politikoa.
- Ingurumeneko Tokiko Foroa
- Hirigintzako Plangintzaren Tokiko Foroa.
- Erosketa guztiz bakarrak proiektua.
- Euskararen Laguna merkataritza sarea
- Nagusi Txartela programa.

Arauen aldaketek, mugaketek, edukieraren murrizketek eta administrazio ezberdinek covid-19aren pandemiaren harira hartu dituzten beste neurri batzuek ondorio negatiboak izan dituzte tokiko negozioetan, oro har. Hori dela eta, elkarteak jarraituko du administrazio eta erakundeei erakusten dirulaguntzak eta laguntzak behar direla eta autonomoei nahiz ETEei benetan lagunduko dieten ekintzak gauzatu behar direla. Gainera, arreta berezia jarri behar zaie hartutako neurrien ondorioz gehien sufritu duten azpisektoreei.

Urteko sasoi honetan udalerriko hogeit hamar gutxi enpresa sartu dira elkartean. Horri dagokionez, lan profesionala eta planifikatua egiten dugu Getxoko negozioei gure kolektibotik egiten ditugun jardueren berri emateko eta tokiko denda bakoitzari elkartean sartzearen erabilgarritasuna eta abantailak ezagutarazteko. Bestalde, modu indibidualizatuan ematen diegu arreta gure kolektiboan egoteari utzi nahi diotela esaten diguten establezimenduei.

## 2. KOMUNIKAZIOA

---

### 2.1. ZIRKULARRAK

Aurten, 40 jakinarazpen zabaldu dizkiegu enpresa elkartuei, beren negozioetarako interesgarriak diren hainbat gairi buruz: araudia, laguntzak eta diru-laguntzak, enpresak sustatzeko jarduerak eta zerbitzuak, hirugarrenekin akordioak, besteak beste.

Gehienek, elkartekideen %90 baino gehiagok, elkartearen jakinarazpenak posta elektronikoko bidez jasotzen ditu. Hala ere, nahiago dutenek mezularitza bidez jaso ditzakete.

## 2.2. KUDEAKETAK KOMUNIKABIDEEKIN

Komunikazio agentzia bat dago elkartean, eta horien bitartez modu profesionalean zabaltzen dugu elkartearen eta egiten ditugun ekimenetan parte hartzen duten enpresen jarduera. Zerbitzuak barne hartzen du komunikazio planak definitzea, oharrak eta prentsa jakinarazpenak egitea, elkarrizketak kudeatzea, publizitatearen kontratazioa, etab.

## 2.3. NEWSLETERRA

Aldiro-aldiri buletin digitala argitaratzen dugu, urtean zehar gauzatzen dugun jarduera, parte hartzen duten enpresak eta interesa izan dezakeen informazioa nahiz albiste esanguratsuak jasotzen ditugularik, bai eta legeekin lotutako nobedadeak ere. Harpidedun bakoitzak aurrez hautatutako hizkuntzan jasoko du buletina, hau da, gaztelaniaz edo euskaraz.

Newsletterreko sekzio bakoitzak webguneko bere atalerako estekak ditu. Hala, gai bakoitzaren informazio zehatzagoa eskuratzen da.

## 2.4. WEB ATARIA

Aurten [www.getxoenpresa.com](http://www.getxoenpresa.com) -eko 8.400 orrialde baino gehiago bisitatu dira. Web atariak honako aukera hauek ematen ditu:

- Kokapenerako eta harremanetarako datuak zabaltzea; bazkide bakoitzaren logotipoa eta establezimenduaren, bulegoaren nahiz produktuen 6 irudi; enpresa bakoitzaren webgunera eta sare sozialetako profiletara daramaten estekak. Orobat, bazkide tutako enpresa bakoitza udalerriko mapan kokaturik egongo da eta bezeroentzat geokokaturik, baldin eta webgunera sarbiderik badago sakelako telefonotik.
- Elkartearekin harremanetan jartzea, izena ematea eta ordaintzea, hala badagokio, sustatzen ditugun proiektuak, ordaintza-pasabide seguru baten bitartez.
- Honako dokumentazio hau eskuratzea: zirkularrak, intereseko informazioa, araudia, etab.

Egiten dugun jardueraren eta parte hartzen duten nahiz gure elkarteko kide diren establezimenduei buruzko komunikazio kanal hau aktibo izaten jarraituko dugu.

## 2.5. SARE SOZIALAK

Elkartek sare sozialetan dituen profilen bidez (facebook: getxoenpresa eta twitter: Getxo\_Enpresa) elkartearen jarduera eta parte hartzen duten enpresena ezagutzera ematen jarraituko dugu 2021ean zehar, nahiz sare horietan profila daukaten enpresa elkartekideekin harremana izaten.

Gaur egun, elkartek 2.400 jarraitzaile baino gehiago ditu. Ildo horretatik, horiekin elkarreragitera bideratutako hainbat ekintza gauzatuko ditugu. Izan ere, uste dugu gaur egun komunikazio kanal esanguratsua dela. Bada, elkarteko kide diren enpresei dei egin nahi diegu aipatutako sare sozialetan argitaratzen ditugun mezuak zabaltzeko, proiektuen zabalkundea eta gure elkartea osatzen dutenena areagotzeko asmoz.

### 3. ZERBITZUAK

#### 3.1 AKORDIOAK HIRUGARRENEKIN

Elkarteko kide izate hutsagatik, enpresek baldintza berezietan kontrata ditzakete beren jarduera garatzeko beharrezko diren produktu/zerbitzu hauek:

- Kontabilitate, lan, zerga eta merkataritza arloetako aholkularitza: GESTORÍA RINCÓN eta MARTIN LAUCIRICA GRUPO ASESOR.
- Obren zuzendaritza eta lizentzien lorpena: ARKIBATZ.
- Legezko arloa eta arlo juridikoa: GESTORÍA RINCÓN.
- Laneko arriskuen prebentzioa eta osasunaren zaintza: IBERSYS.
- Finantza produktuak eta zerbitzuak: KUTXABANK.
- Publizitatea eta promozioa: VINILO FM
- Informatika/telefonika produktuak konpontzeko eta softwarea eta hardwarea eskuratzeko zerbitzua: NORVIS.

Gainera, elkarteko enpresek segurtasunari, babesari nahiz garbiketa eta desinfekzioari lotutako produktu eta zerbitzuen katalogo zabala daukate beren esku, baldintza berezietan (prezioari nahiz zerbitzuari dagokionez). Elkarteko kide diren tokiko enpresekin eskusiban sinatutako 6 lankidetzak hitzarmeni esker eskaintzen dugu hori. Enpresa horiek homologatuta daude eta agintaritzak eskudunek ezarritako baldintzak betetzen dituzte:

- Babesteko pantailak: ARMARIOS LOS CHOPOS.
- Aurpegiko pantaila eta babestekoa: SUMIMAR.
- Binilozko eta nitrilozko eskularruak: SUMIMAR.
- Maskarak: SUMIMAR.
- Gel hidroalkoholikoa: SUMIMAR.
- Gainazalean nahiz produktuetan berariaz jarduteko eta birusa kentzeko garbiketa eta desinfekzio produktuak: SUMIMAR.
- Lokalak desinfektatzeko zerbitzua: DESINFECCIONES ABANDO, LIMPIEZAS AREETA eta SANEN SANIDAD AMBIENTAL.

Akordio bakoitzaren xehetasunak eta horiek zein enpresarekin gauzatu diren ikus daiteke hemen: <https://www.getxoenpresa.com/eu/zerbitzuak/akordioak-beste-batzuekin/> eta <https://www.getxoenpresa.com/eu/covid-19-segurtasun-babes-eta-desinfekzio-produktuen-eta-zerbitzuen-katalogoa/>

#### 3.2. AHOLKULARITZA

Gaur egunera arte enpresa elkartekideen 45 kontsulta baino gehiago artatu eta kudeatu ditugu, enpresa kudeaketako hainbat alorri buruzkoak: lanekoa, legezkoa, fiskala... eta pandemiak eragindako egoerarekin lotutako kontuei buruzkoak ere bai, noski.

#### 3.3 LAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZAK ETA LIZITAZIOAK

Urteko lehen 4 hilabeteetan, enpresa elkartuei hamabost laguntza eta diru-laguntzaren berri eman diegu, honakoekin lotutako zenbait neurri buruzkoak: ekipamendu pertsonal, kultura, ostalaritza, kirol instalazioak, turismoa, inbertsioak, finantzaketa, berrikuntza eta nazioartekotzea. Horrez gain, enpresa elkartuen hainbat laguntza eta diru-laguntzei buruzko 65 espediente baino gehiago izapidetu dira.

Hainbat erakundek eta entitatek enpresa bazkideei kudeatzen dizkieten laguntzen eta diru-laguntzen eskabideak eta justifikazioak jakinarazten, aholkatzen eta izapidetzen jarraituko dugu, eta espediente bakoitza amaitu arteko jarraipena egingo dugu. Horrez gain, kolektiboko enpresentzako interesgarri izan daitezkeen lizitazioen berri ere emango dugu.

### **3.4. LAN POLTSA**

Urtearen hasieraz geroztik, kolektiboko enpresen partetik langileak eskatzeko 5 eskaera kudeatu ditugu. Honako lanpostu hauetan jarduteko langileak behar zituzten: optikako laguntzailea, harakina eta saltzaileak.

Zerbitzuak honako hauek hartzen ditu barne: enpresa elkartekideek helarazitako beharrianetara hobekien egokitzen diren curriculumen aurre-aukeraketa (izan ohiko kontrataziorako edo beste formatu batzuetarako, praktikak kasu), hautagaiak aukeratzeko prozesurako laguntza eta lan arloko aholkularitza (kontratu motarik egokiena, kontratazioa finantzatzeko balizko laguntza eta dirulaguntzak, gizarte segurantzako kotizazioak, etab.), besteak beste.

Gainera, hala behar duten elkarteko enpresek elkarteko aretoak erabiltzeko aukera dute hautagaiak aukeratzeko.

### **3.5 #GETXOENPRESAFREEWIFI**

Nabarmenezkoa da #GetxoEnpresaFreeWifi sarean erregistratutako konexioen % 85 tokiko bezeroetatik datozela. Bezero horiek Internetera doan, askatasunez eta segurtasunez sartu ahal izan dira sarea osatzen duten 50 establezimenduetan. Gainera, bezeroen datuak lortzeko tresna bat ere badu proiektuak, eta elkarteko kide diren enpresa guztiek eskura dezakete.

Sarea osatzen duten enpresek honako abantaila hauek eskuratzen dituzte:

- Bezeroen erosketa edo kontsumo esperientzia hobetzen du.
- Bezeroak fidelizatzen ditu eta berriak erakartzen ditu.
- Bezeroekiko komunikazio kanal berri bat dira.
- Sare sozialetako gomendioak hobetzen ditu.
- Informazioa bidali ahal zaien kontaktu digitalak sortzen ditu.
- Eragin handiko publizitatea ahalbidetzen du.
- Bezeroentzako erraza da, ez baitute datu pertsonalik eman beharrik.
- Erabakiak hartzeko hainbat datu eskuratzea ahalbidetzen du: zenbat pertsona igarotzen diren establezimendutik, zenbat sartzan diren negozioan, batez-beste zenbat denbora ematen duten barruan, fideltasun tasa, sarerako konexioen kopurua, etab.

Aurten ahaleginduko gara proiektuari jarraipena ematen. Hobetzea eta sarea osatzen duten negozioen kopurua areagotzea da helburua.

### **3.6. ENPRESA BAZKIDEENTZAKO NEWSLETTER EREDUA**

Hala nahi duten elkarteko enpresek newsletter txantiloia eskura dezakete, beharrezkotzat jotakoan harpidedun/bezeroekin komunikatu ahal izateko. Gainera, erabiltzailearentzako oinarritzko gida izango dute, buletin digitala egin eta bidaltzea erraztuko diena.

Honakoak ditu newsletterren txantiloiak: enpresaren irudia duen goiburua, negozioaren aurkezpen laburra, argazkia + azalpen testua nabarmendu beharreko produktu/zerbitzuentzat, estekak sartzeko aukera, eta enpresaren webgunerako eta sare sozialetarako esteka duen orri-oina.

### 3.7 NEGOZIOEN KANPOKO IRUDIA HOBETZEKO PROIEKTUA

Zerbitzu berri honen bidez, hala nahi duten enpresek kalitatezko material grafiko bereizgarria eskuratu ahal izango dute, eta beren komunikazio kanaletan, webguneetan, sare sozialetan, argitalpenetan, karteletan, bestelako packing-merchandising elementuetan eta establezimenduetan erabili ahal izango dituzte.

Hasiera batean, parte hartzen duen establezimendu bakoitzak eskaintzen duen irudiaren azterketa bat izango du, gaian adituak direnek egina, eta banakako aholkularitza emango zaio eskain dezakeen irudirik onena lortzeko.

Jarraian, enpresak argazki saioetan parte hartuko du. Hala, book bat izango du eskura, eskaintzen dituen produktuak/zerbitzuak, horiek eskaintzeko lokala edo espazioa eta abar erakusteko askotariko materialarekin. Material hori hautatu, findu eta hainbat formatu eta tamainara egokituko da, establezimenduek askotariko kanalen bitartez erabili ahal izan dezaten.

Era berean, zerbitzu hori erabiltzen duen enpresa bakoitzak bere laguntza izango du, tutoretza bidez, bere komunikazio kanaletan sortutako materialaren erabilera optimizatu ahal izateko. Elkarrekin, bere aldetik, zerbitzuaren komunikazio garrantzitsua egingo du, bai eta zerbitzua erabiltzen duten enpresena ere, eta haren emaitza grafikoa.

### 3.8 OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUAK SUSTATZEKO PROIEKTUA: ERREZETAK ETA TRIKIMAILUAK:

*Getxon, gure errezetak eta trikimailuak kontatuko dizkizugu* lelopean elkarteko kide diren ostalaritza enpresak promozionatzen kanpainak egitea aurreikusi dugu. Horretarako, barne zein kanpo komunikazioko hainbat kanal erabiliko ditugu.

Hala, proiektuan parte hartzen duten elkarteko establezimenduei proposatzen diegu herritarrei azaltzeko errezetak nola egiten dituzten eta zeintzuk diren beren sukaldeko trikimailuak. Garrantzia berezia emango diogu zabalkundea talde gisa egitea, eta ez enpresa bakoitzak bere aldetik. Modu horretan, askoz ere erakargarriagoa eta interesgarriagoa izango da erabiltzaileentzat/bezeroentzat.

Parte hartzen duten enpresa guztiek izango dute beren grabaketa propioa, beren bitartekoekin zabaldu ahal izan dezaten.

Proiektua aurrera eramateko, ikus-entzunezko materiala sortzen espezializatutako enpresa bat parte hartzen duten ostalaritza establezimenduetara joango da grabaketak egitera. Horrez gain, egin beharreko zabalkundea (elkartearen nahiz ekimenean parte hartzen duten ostalaritza establezimenduen partetik) prestatu eta planifikatuko du.

### 3.9 IRAGARKIEN OHOLA, HARREMANETARAKO WEBGUNEA

Elkartean sartutako enpresek kolektiboko gainerako enpresei zuzendutako mezuak argitara ditzakete [www.getxoenpresa.com](http://www.getxoenpresa.com) webgunean horretarako berariaz sortutako atalean. Honako gaiei buruzkoak izan ohi dira: berrikuntzak, ekitaldiak, inaugurazioak, produktu-zerbitzu berritzaileak eta bereizgarriak, titulartasun aldaketak, toki aldaketak, lortutako sari eta aitortpenak eta abar.



## 4. JARDUERAK

---

2021ean zehar planteatu genuen jarraian zehaztutako ekintzak aurrera eramatea, bazter utzi gabe elkarteko enpresentzako interesgarriak eta erabilgarriak izan daitezkeen beste batzuk.

### 4.1. 2020ko AGENDA-DIETARIOA

Azaroaren amaieran, 2022rako agenda-dietarioa jasoko duzue elkarteko enpresa bazkideek, bai eta elkartearen bidez aurrera eramaten ditugun jardueren, ekintzen eta zerbitzuen erakunde, organismo publiko eta ente babesleek eta laguntzaileek ere.

Hala nahi duten enpresa elkartuek euskarri horretan sartzen diren publizitate-tarteak dituzte eskura, bai eta 2022ko jaiegunen zerrenda eta enpresentzat interesgarriak diren hainbat telefono ere. Dietario bakoitza dagokion establezimenduaren izenarekin pertsonalizatuko da.

### 4.2 TOKIKO NEGOZIOEN EGUTEGIA

Artista batek, esate baterako argazkilaritzari, akuarelari edo graffitiari lotuak, 2022. urterako egutegi batean islatuko du udalerrian tokiko negozioek sortzen duten bizitza, horien garrantzia eta bertan erosi eta kontsumitzeko beharra.

Proiektuarekin bat egiten duten enpresek hainbat aukera izango dituzte beren bezeroei entregatzeko (saltokian erosi edo kontsumitzen dutenean) eskura izango duten egutegi kopuruari dagokionez, bai eta horiek entregatzeko baldintzei dagokienez ere.

### 4.3 BONOEN EKIMENAK

Tokiko administrazioaz gain, beste administrazio batzuek bultzatutako bonoen programa mota bakoitzerako atxikipenak eta ezarritako izapideak ere gauzatuko ditugu.

Ildo horretatik, aurtun ostalaritzako 15 establezimendu Euskadi Turismo Bono programara batzeko izapideak egin ditugu, eta horri buruz galdetu dizkiguten zalantzak argitu ditugu.

### 4.4 GETXOKO XXXI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Aurtengoa lehiaketaren 31. edizioa izango da. Azaroko 2. hamabostalditik aurrera, tokiko enpresek izena emana hala izango dute fisikoaren kategorian (erakusleihen terminoa zabal ulertuta eta onartuta egindako apaingarria kanpoaldetik ikusi ahal izatea) edo kategoria birtualean (webgunea eta sare sozialetako profilak), eta sari interesgarriak nahiz jendearen aitortpena lortu ahal izango dituzte. Aurreko edizioan, sariketan 127 hautagaitza erregistratu ziren kategoria bietan.

Epaimahai profesionala erakusleihen, apainketaren eta teknologia berrien arloetako adituek osatuko dute. Profesional entzutetsuak izango dira, ibilbide garrantzitsua dutenak, eta beraiek ebaluatuko dituzte aurkeztutako proposamenak.

Gainera, mapa interaktibo bat sortuko da, erakusleihen fisikoaren modalitatean lehiaketan parte hartzen duten erakusleihen irudiak jasoko dituenak. Horrez gain, askotariko ikus-entzunezko materiala ere izango du, eta horrek ahalbidetuko du herritarrei nahiz bisitariei erakustea zeintzuk diren parte hartzen duten hautagaiak. Erakusleihen irabazleen eta sari banaketaren berri ere emango da.

Aurreko edizioetan bezala, hedapen kanpaina garrantzitsu bat egingo dugu, bai lehiaketa bera zabaltzeko, bai bertan parte hartzen duten enpresen berri emateko. Horrez gain, saiatuko gara enpresentzako sariak aurreko urteko ediziokoak baino hobeak izan daitezen.

Egoerak ahalbidetzen badu, ahaleginduko gara abenduaren erdialdean ohiko sari banaketa egiten ekitaldi publiko baten bidez. Izan ere, bertaratuen artean sinergiak eta harremana sortzea ahalbidetuko du horrek.

#### 4.5 GETXO BONO

Aurreikusten denez, maiatzean Getxo Bonoren hurrengo edizioa abiatuko da, jarduera ekonomikoaren sektore berriak barne hartuko dituena: kirol-aisia, akademiak, gimnasioak, ostatu izaera duten enpresak eta jarduera turistikoak, etab. Gainera, ostalaritzaren sektoreari zuzendutako bono berezia egongo da.

Iazko edizioan baino bono gehiago egongo dira. Izan ere, udalak areagotu egingo du jarduera hau aurrera eramateko ematen duen dirulaguntza.

Herritarrek/bezeroek eta ekimenari lotutako saltokiek bonoak eskuratu eta balidatzeko eredu erraz bat sortzean datza, eta zehaztu bezain laster jakinaraziko da.

#### 4.6 35 GETXO MODA

Getxo Moda 2021ek aire berriak izango ditu, eta moda, kultura, gastronomia, turismoa eta abar fusionatuko ditu.

Proiektuaren 35. edizio honetan, jasagarritasunak gidatuta, proiektuak honako ekintza hauek hartuko ditu barne, besteak beste:

- Moda Tours – GETXO DEKORATU BAT BAILITZAN: argazki eta bideo ekoizpen bat egingo da udalerriko hainbat txokotan, proiektuari batzen zaizkion negozio ezberdinetako arropak eta *look*-ak erabiliz. Emaitza gisa, udalerriko hainbat lekutan kokatutako tamaina handiko totemen ibilbide bat sortuko da, eta modarekin, osagarriekin eta estilismoarekin lotutako proposamenak ezagutaraziko dira, guztiak ere Getxon aurki daitezkeenak. Ikusleek erraz identifikatu ahal izango dute look bakoitza zein saltokik osatu duen.
- Eraikinen gaineko proiektzioak – GIRO MAGIKOA ETA ABANGOARDIAKOA: udalerriko eraikinen gainean proiektuan parte hartzen duten eta estilismoaren arloan lan egiten duten saltoki eta denden proposamenekin lotutako irudiak eta bideoak proiektatuko dira, bai eta proiektuarenak berarenak ere.
- Eskaintza gastronomikoa eta cocktailak – FOOD&GETXOMODA: udalerriko ostalaritza lokalek beren sormena eta transmisiorako gaitasuna erakutsi ahal izango dute gastronomia produktu baten bidez. Hala, Getxo Modaren inspiraziotik abiatuta, pintxo bat edo cocktail bat egingo dute eta ikusleei eskainiko diete proiektua gauzatzen den egunetan. Pintxo edo cocktail onena sarituko da, eta egin duen establezimenduak aitortza publikoa eskuratuko du. Pintxo/cocktailarekin argazkiak bidaltzen dituzten bezeroek ere sariak jasoko dituzte.
- Kupula gardenak- PLANETA ETA MODA: instalazio original baten bitartez ezagutaraziko da jasagarritasunean oinarritutako ekoizpena edo inspirazioa duen moda, diseinatzaile berriek egina eta geurean nahiz nazioartean prestigio handia duena.

Proiektuaren aurretik, bitartean eta ostean, promozio kanpaina garrantzitsu bat egingo da. Askotariko argazki materialak eta material grafikoak, bideoak eta beste euskarri batzuetako edukiak hartuko ditu barne; tartean, magazine digital bat, sare sozialen bidez programatutako ekintza

espezifikoak, agerraldiak komunikabide handietan, etab. Horrek guztiak ahalbidetuko du udalerriko saltokien eta ostalaritzako nahiz zerbitzuetako enpresen

#### **4.7 GOSALTZERA GONBIDATZEN ZAITUGU**

Kontsumoa sustatzeko eta bezeroen leialtasuna saritzeko, ekimenean parte hartzen duten negozioek txartelak emango dizkiete beren establezimenduetan erosten edo kontsumitzen duten bezeroei. Txarteletako batzuk herriko ostalaritza establezimenduetan gosaltzeko sariak izango dira.

Proiektu hau ekimenean parte hartzen duten establezimenduen jardueraren pizgarri izatea nahi da, eta ostalaritza sektoreari laguntzea, bezeroak fidelizatzeaz bat. Izan ere, konfiantza saritzen da, eta doako gosariak eskura ditzakete proiektuari lotutako negozioetan erosi edo kontsumitze hutsagatik.

Horrez gain, proiektuaren komunikazio kanpaina bat egingo da. Horrek ahalbidetuko du zabalkundea egitea jarduerari berari nahiz parte hartzen duten merkataritza saltokiei, ostalaritzakoei eta zerbitzuetakoei.

*GETXO ENPRESAK, G48204655 IFK, zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna denak, jakinarazten dizu, 2016ko apirilaren 27ko Datuen Babesaren Araudi Orokorrean adierazitakoaren arabera, zure datu pertsonalak jaso eta tratatzeko orduan araudi horrek finkatutako neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak aplikatzen dituela, arduradunaren produktu eta zerbitzuak eskaintzeko asmoz, baita edonolako jakinarazpen bidaltzeko asmoz ere, hartara izendatutako bitartekoen bidez. Zuk, ukitutako edo interesdun gisa, eta datuen titular gisa, zeure adostasuna eta baimena ematen dituzu datuok arduradunaren datu-basean sartzeko.*

*Nolanahi ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, mugatzeko, lekualdatzeko eta aurka egiteko eskubideak dohainik bete ditzakezu, arduradunarengana joz: ARENE, 22, GETXO, 48991, BIZKAIA. Gutunean RGPD idatzi beharko duzu (Datuen Babesaren Araudi Orokorra).*